




ikastolak



TANTIRUMAIRU IKASTOLA LESAKA



Lesakako Tantirumairu Ikastolak, Aiako Harrien ingurua aukeratu zuen Nafarroa Oinez 2017ko lehendabiziko ekimen kulturalak egiteko.

Tobera-tailerra izan zen horietako bat, toberak ia desagertuak egon ziren Euskal Herri osoan baina Lesaka eta Oiartzun aldean ohiturari eutsi zioten.

Transmisio horri eusteko asmoz, Arditurrin, Lesakako ikastolak otsailaren 11an ikastaroa antolatu zuen Soinuenea herri musikaren inguruko fundazioarekin batera.

Arditurri Oiartzunen dagoen antzinako meategi bat da, erromatarren garaitik ia gaur egun arte ustiatua izan dena. Toberak meategiei lotutako musika-tresna direnez, ingurune hori aukeratu zen tailerra antolatzeko.

Tailerra arratsaldeko 4.30ean hasi zen; hasieran irakasleek toberen historia azaldu zuten, nola sortu ziren, noiz jotzen ziren... Ondoren Harritxu eta Iratxe Muxika ahizpek tobera saioa eskaini zuten.

Gero nahi zuten guztiei, jotzeko aukera eman zitzaion. Parte hartzeko ez zen adin mugarik, ez aparteko musika jakintzarik behar, horregatik jende aunitz animatu zen burdinak hartu eta jotzera.

TOBERAK LESAKAN 1960. urtean toberak galtzeaz zeuden gure herrian, eta garai hartan Dionisio Mujika lanean hasi zen tradizioa berpizteko asmoz.

Bautista Legasa eta Martin Zubieta bi herritar adinduak ziren toberak jotzen zekiten bakarrak. Haiek izan ziren Dionisioren irakasleak eta haiengandik ikasi zituen toberen inguruko historiak eta ohiturak ere.

Beranduxeago, bere seme ziren Dionisio eta Patxiri irakatsi zien berak ikasitakoa eta 70. eta 80. hamarkadetan, atxa semeek EZ DOK AMAIRU mugimendu kulturalaren inguruan hainbat herrietako ekitaldietan parte hartu zuten toberak joaz. Hortaz gain, Bortzirietako eztei batzuetan ere jo izan zuten.

Gaur egun, Dioniren alaba diren Arritxu eta Iratxek ere, atxak, atxa eta osabaren biderei jarraitu nahi izan diote eta toberak jotzen ikasi dute. Nafarroa Oinezko aurkezpenean bi ahizpek tobera joaz hasiera eman zioten ekitaldiari.

ZER DIRA TOBERAK? Batetik bertze itxuran aldaketak egoten badira ere, arruntena honelakoa izaten da: gutxi gorabehera metro eta erdiko altzaruzko palanka. Bi muturretatik airean



Argazki honetan 5. mailako ikasleok, Ekifie, Oihan, Lexuri, Josu eta Janire Patxi Muxika tobera irakaslearekin gaude.

Toberen tailerra Arditurrin

NAFARROA OINEZEKO JARDUERA KULTURALEI HASIERA EMATEKO, TOBEREN TAILERRA OSPATU GENUEN LESAKAN

Testua eta argazkia Tantirumairu Ikastola

zintzilik dagoela jotzen da, bi pertsonen sokekin helduta. Bertze bi pertsonen jotzen dute, bakoitzak 30 zentimetroko bi burdin ziriekin kolpatzen du palanka.

Bi jotzaileek bi burdin ziri dituzte, bat esku bakoitzean. Biek txalapartarekin egiten den antzeko jokoa egiten da. Lesaka aldean, erritmoa markatzen dionari "bia" deitzen diote, eta "pikatzaila" edo "errepikia"

bertzeari. Bigarren honi Oiartzun aldean "bata" deitzen zaio.

Hauekin batera aritzen da koplaria edo bertsolaria. Honek, burdin joaldiarekin tartekatuz, bertsoak kantatzen ditu. Batzuetan, toberaren bertso propio zaharrak; bertzeetan, saio horretarako bereziki prestatutakoak, edota bertso berriak bat-batean jarriak.

Txalapartaren "aldaera" hau (asko-

tan nahastu egiten dira txalaparta eta tobera) ez da soinu-tresna bakarrik, baizik eta festa-giroan egiten den ekintza.

TOBEREN JATORRIA Ia desagertzeaz egon ziren toberak Euskal Herrian, baina Bidasoa eta Donostialdean, Oiartzun eta Lesakan zehazki, ohiturari eutsi zitzaion.

Lesakan, sutegietako hauspoaren

tutuari deitzen zitzaion tobera, eta horiek garbitzeko lanetatik sortu zen joaldi mota hau. Barruko hautsa eta zikinkeria garbitzeko, metalezko ziri batzuekin kolpatzen zen tutua eta hortik sortu zen musika tresna.

Oiartzunen berriz, Arditurririko meategietan, barrenatzaileek mea zultzeko erabiltzen zuten palanka tobera bilakatu zen.

Toberak ospakizunei lotuta egon dira beti, adibidez, "karobi ezteya" deitzen zen bestan. Aspaldian, auzokideak karea egiteko elkartzen ziren eta gauez, karobien inguruan suak pizturik, afaria, bertsolariak, irrintziak eta musika egoten zen eta toberak jotzen zituzten.

Lesaka eta Oiartzun inguruan, ezteiekin lotuta dago tobera. Lesakan, pregoia jotzen zuten egunean; hau da, ezkontza baino lau bat aste lehenago, herriko gazte taldea, tobera bizkarrean zuela, andregaiaren etxera joaten zen. Atarian palanka lurrean sartzen zuten; gehienetan apaindua egoten zen eta muturrean lore sorta bat jartzen zioten. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zein herritan mantendu zen toberak jotzeko ohitura?
2. Zein izen ematen zaio tobera jotzaile bakoitzari?
3. Lesakan, noiz jo ohi ziren toberak?

Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Aroa Moreno (Ibaialde Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Udane Ariztizabal (Andra Mari Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua era-kundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.